

3. Oinarri etiko eta juridikoa

ONARRI ETIKOA

PRINTZIO ETIKOAK

Besteak beste, Italiako Bioetikako Batzorde Nazionalak 1998ko txostenean zioenari jarraiki, zalantzarik gabe, **EGMa etikoki onartezina da**, eta horregatik, Estatuak Emakumeen Genitalen Mutilazioa (EGM) eta neska adingabeen osasunerako bestelako Jardunbide Tradizional Kaltegarriak (JTK) deuseztatzeko neurri eraginkor guztiak hartzeko betebeharra dute²¹.

Beste testu batzuetan, EGMa eragozpentzat hartzen da, norberaren sexualitatea kontrolatzeari dagokionez, emakumeen eta gizonen askatasun-berdintasuna onartzeari dagokionez, eta euren sexualitatea eta sexu- eta ugalketa-osasunerako eskubideak baliatzeari dagokionez. Horixe gertatzen da Pekingo Adierazpenean eta Ekintza Plataforman (1995), Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunean (1966) eta Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Nazioarteko Konferentzian (1994). Osasunaren Mundu Erakundeak mutilazioaren gaiari aurre egiteko ekintza ikuspegi horretatik begiratuta bideratzen da, emakumeek eta neskek ahalik eta osasun-mailarik handienaz gozatzeko eskubideari dagokion alderditzat hartuta, betiere sexu- eta ugalketa-eskubideak erabat baliatzearekin lotutako kontzeptu zabal baten barruan²².

1979. urtean Nazio Batuek Emakumeen aurkako Diskriminazio Mota oro Desagerrarazteko Hitzarmena onartu zuten; hitzarmen hori 150 bat herrialdek sinatu zuten, eta horren ondorioz, praktika diskriminatzaileen aurka egiteko politika positiboak onartzeko premiaz jabetu dira gobernuak. 1. artikulua arabera, “emakumeen aurkako diskriminazioa” zera da, “sexuan oinarritutako bereizketa, bazterketa edo murrizketa oro, baldin eta, esfera politikoan, ekonomikoan, sozialean, kulturean, zibilean edo beste edozein esferatan, emakumeek giza eskubideak eta funtsezko askatasunak baliatzea edo gauzatzea edo horiek guztiak emakumeei onartzea murriztu edo ezabatzeko helburua edo ondorioa badute, emakumeen egoera zibila edozein izanik ere eta gizonen eta emakumeen berdintasuna oinarritzat hartuta.”

Hortaz, jardunbide makur eta bidegabea da, eta **bioetikaren oinarrizko lau printzipioetako** bi urratzen ditu.

- Lehenik, EGMak **malefizentziarik ezaren printzipioa** urratzen du (“*primum non nocere*”: lehenengo gauza kalterik ez egitea). Jardunbide horrek neska eta emakumeen osasunean ondorio larriak eragiten ditu bizi osorako, eta beraz, EGMa pairatzen duten emakumeen osotasunerako eraso larritzat hartu behar dira. Osotasun fisikorako eskubidea Giza Eskubideen lehenengo Adierazpenean (Gizakiaren eta Herritarren Eskubideen 1789. urteko Adierazpena) bildu zen, bizitzarako, askatasunerako eta jabetza pribaturako eskubidearekin batera; Ilustrazioaren ondorio izan zen lehenengo adierazpen hori.

²¹ Adela Asua. Konstituzio Auzitegiko magistratua. EHUko katedraduna.

²² M. Elena Torres Fernández. Almeriako Unibertsitatea.

- Bigarrenik –baina horrek ez du esan nahi garrantzia txikiagoa duenik–, EGMak **justizia-printzipioa** urratzen du (“pertsona guztiek errespetu eta kontsiderazio berdina merezi dute”). Giza Eskubideen bigarren belaunaldian (1948ko Adierazpen Unibertsala) pertsonak, besteak beste, sexua dela-eta ez diskriminatzeko eskubidea onartzen da. EGMa onartezina da giza duintasunaren egungo onarpen-mailari dagokionez, pertsonaren besterenezintasun-estatusaren edukia hartzen baitu eraginpean generoaren ikuspegitik begiratuta. Ikuspegi horri esker, biktimak emakumezkoak izatearekin eta emakume izateagatik esleitzen zaien gizarte-rolarekin lotutako giza eskubideen urraketek berebiziko garrantzia eman zaie. Giza eskubideen urraketa horien modalitate larrienetako bat genero-indarkeria da, eta EGMa, lehen esan dugunez, genero-indarkeria mota bat da.

HERRIEN KULTURAK ETA TRADIZIOAK ERRESPETATZEA. NORAINO?

Gure gizarteak konplexuak dira; horrelako gizarteetan, askotariko kolektiboak daudela onartu behar dugu, eta kolektibo bakoitzak osasuna modu batera ulertzen du. Hortaz, hasieran, behintzat, ikusmolde horiek berez balioduntzat hartu behar dira, eta errespetatu egin behar dira²³. Baina, tolerantziak noraino iritsi behar du?

Zenbait eremutan, multikulturalismoaren ideia jutzen da etorkinen sektore batek inportatutako ohiturekiko tolerantzia sustatzeko. Multikulturalismoa (edo eman nahi zaion izena ematen zaiola) teoria bat da eta hainbat kulturaren arteko bizikidetza defendatzen du, nahiz eta kultura horietakoren bat agian ez den demokratikoa, gizarte demokratiko beraren barruan. Ez du inolako zerikusirik mestizajearekin, kultura-aniztasunarekin edo kultura desberdinen arteko bizikidetzarekin, betiere esparru komun batean. Multikulturalismoaren bereizgarria zera da, esparru komun hori ukatzea eta gizartea konpartimentu estankotan banatzea, tradizio edo kultura desberdinetako elementuak nahastu gabe. Ildo berean, gizartean kultura-aniztasuna garatzea interesgarritzat jotzen da, bizikidetza egokia izan dadin eta giza eskubideak errespetatu daitezkeen, baina ez da multikulturalismoaren ideia sustatu behar, biztanleriaren sektore bat desabantaila-egoeran geratzen baita beti (sarri, emakumeak)²⁴.

Alemanian, Frantzia edo Erresuma Batuan aspalditik bizi duten gizarte multikulturala eta multietnikoa errealitate bihurtzen hasi da gure artean. Egia da, halaber, integrazioaren bideak ez duela ideien edo bizimoduaren inposizioan oinarritu behar. **Pertsonak ez ezik, pertsonen sinesmen eta ohiturak ere errespetatu behar ditugu, baina ez edonola, edo ez den-denak**²⁵.

Kultura-aniztasuna sustatzeak ez du esan nahi kultura baten jardunbide edo tradizio guztiak ontzat eman behar direnik –ezta gure kulturakoak ere–, baizik eta gizaki ororen funtsezko berdintasunaren premisarekin eta askatasuna baliatzearekin bat datozenak soilik.

²³ Xabier Etxeberria.

²⁴ N. Martín Espildora.

²⁵ José Manuel Moreno Villarés. Madrilgo 12 de Octubre ospitaleko pediatra.

Bartzelonako Medikuen Elkargo Ofizialak honako hau adierazi zuen komunikatu batean: «emakumeen genitalen mutilazioak urratu egin ditu pertsonaren oinarritzko eskubideak baliatzeko aukera bermatzen duten legeak: Konstituzioa, Autonomia Estatutua, Zigor Kodea, Erkidegoko araudia eta Eskubideen adierazpena»; halaber, honela dio: «jardunbide hori ezin da justifikatu kultura-elementu bat den argudioarekin, eta kultura-elementu den aldetik, errespetatu egin behar den argudioarekin. Lege- eta deontologia-esparruak babesten ditu, jada, norbanakoen eta kolektiboen aniztasun ideologikoa eta kulturala».

Uztailaren 8ko 3/2005 Lege Organikoaren Zioen Azalpenean honako hau aipatzen da: “Sexu-mutilazioak jardunbide tradizional dira zenbait herrialdetan –Europar Batasuneko herrialdeetara etorritako immigranteen jatorrizko herrialdeetan, hain zuzen–, baina hori ezin dugu justifikaziotzat hartu giza eskubideen urraketa galant hori ez prebenitzeko, ez jazartzeko eta ez zigortzeko”.

Emakumearen osasunari kalte egiten dion eta sexualitatean eragina duen kultura-jardunbide hori egitea ezin da inolaz ere defendatu ikuspegi etikotik begiratuta²⁶.

OINARRI JURIDIKOA

Zigor-arauak komunitatearen jokabide onartezinekiko gaitzespenaren adierazgarri dira. Bestela esateko, debekuen katalogo bat finkatzen dute, bizikidetza baketsua eta gizarte baten antolamendu-printzipioak errespetatuko dituen bizikidetza bermatzeko behar-beharrezkotzat jotzen diren eskubideei eta gizarte-bizitzako baldintzei dagokienez. “Gutxienezkotzat” jotako printzipio eta balio etikoak berresten dira, azkenean, estatu demokratikoen zuzenbide positiboan eta arau juridikoetan. Eta hain justu, “malefizentziarik ezaren” eta “justiziaren” printzipioak dira gutxienezkoen balio etikoak adierazten dituztenak eta estatuetakoa legegintza-botereak pertsona guztiei eskatzen dizkienak, errespetatzen ez badira zigorra jaso daitekeela.

1948ko Eskubide Unibertsalen Adierazpena gorabehera, EGMa eta emakumeen aurka familiaren edo komunitatearen eremuan egiten diren bestelako indarkeria-ekintza asko ikusezin izan dira “pribatutzat” hartzen zirelako eta, hortaz, ez ziren jotzen giza eskubideak urratzen dituzten ekintzatzat.

NAZIO BATUAK

EGMaren aurkako borrokaren babesle garrantzitsuenetako bat izan da NBEa, Giza Eskubideen nazioarteko agendan kokatzen lagundu baitu; halaber, NBEren agentzia asko – Osasunaren Mundu Erakundea (OME), Nazio Batuen Biztanleria Funtza (UNFPA), Emakumearen aurkako Diskriminazioa Desagerrarazteko Batzordea (CEDAW), Emakumearen Egoera Juridikoari buruzko Batzordea (CSW), Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtza (UNICEF) eta abar– EGMa desagerrarazteko lanean ari dira. Hona hemen gertakari garrantzitsuenak:

²⁶ José Manuel Moreno Villarés. Madrilgo 12 de Octubre ospitaleko pediatra.

- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, 1951.
- Haurraren Eskubideei buruzko Adierazpena, 1959.
- Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna: 1966. urtean onartu zen eta sexuak eragindako diskriminazioa debekatzen du.
- Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna: 1966. urtean onartu zen, eta giza eskubideak “gizaki orori datzekion duintasunaren” ondorio direla dio.
- Emakumearen aurkako Diskriminazio Mota guztiak Ezabatzeari buruzko Nazioarteko Hitzarmena (CEDAW), 1979.
- Haurraren Eskubideei buruzko Hitzarmena, 1989.
- Emakumearen aurkako Indarkeria Ezabatzeari buruzko Adierazpena.
- Beijjingeo Adierazpena eta Ekintza Plataforma, Emakumei buruzko Munduko IV. Konferentzia, 1995.
- Haurraren Eskubideei buruzko Batzordearen azken oharpenak: Togo (1997); EGMa deuseztatzeko legeria onar dezaten agintzen diete esanbidez gobernuei, haurren eskubideak urratzen dituelako.
- Osasunaren Munduko Batzarra (2008/05/24): EGMaren arloan aurrerapen handia eragin zuen.
- Emakumearen Egoera Juridikoaren eta Sozialaren Batzordeak Emakumeen Genitalen Mutilazioa desagertzea izeneko ebazpen bat onartu zuen (E/CN.6/2010/L.8).
- Zehazki EGMari buruzko ebazpena (A/RES/67/146). NBE, 2012ko abendua.

AFRIKA

Afrikan herrialde askotan –Senegal, Mali, Burkina Faso, Mauritania edo Ghana– EGMari buruzko lege espezifikoa onartu dute; beste herrialde batzuk Zigor Kodea edo Kode Kriminala baliatu dute horrelako jardunbideak jazarri eta zigortzeko, eta beste zenbait kasutan ez dute lege espezifikorik sortu eta ez dute Zigor Kodea baliatu ere, baina indarrean dituzten legeak aplikatzeko modukoak dira. Hona hemen arau garrantzitsuenak:

- Giza Eskubideen eta Herrien Afrikako Gutuna; 1981eko uztailaren 27an onartu zen (CARTA BANJUL).
- Islamaren Giza Eskubideen Adierazpena. Kairoko konferentzia islamikoa, 1990.
- 2003ko ekainaren 23an, Afrikako 28 herrialdeetako adituen topaketa izan zen Kairon.
- Emakumearen Eskubideei buruzko Giza Eskubideen eta Herrien Afrikako Gutunaren Protokoloa; Maputon onartu zen, 2003ko uztailaren 11n (MAPUTOKO PROTOKOLOA).
- Afrikan Genero Berdintasunari buruzko Adierazpen Irmoa, 2004ko uztaila.
- Dakarreko konferentzia, 2010eko maiatzaren 3an eta 4an.

EUROPA

EUROPAKO KONTSEILUTIK EGMaren aurkako hainbat legegintza-ekimen abiarazi dira, eta oinarritzko eskubideen urraketa oso larritzat eta emakumearen aurkako indarkeria mota justifikaezintzat hartzen da jardunbide hori, ez kultura- edo erlijio-tradizioen errespetuaren izenean, ezta hastapen-erritualen testuinguruan ere.

Europako Kontseiluak EGMari buruzko 1247 Ebazpena eman zuen 2001. urtean, eta estatu Kideei zera eskatzen zaie, “genitalen mutilazioa debekatuko duen legeri espezifikoa onar dezaten, eta genitalen mutilazioa giza eskubideen eta gorputzaren osotasunerako eskubidearen urraketa dela adieraz dezaten”, eta arduradunak auzibidera eramatea “senitartekoak eta osasun-arloko profesionalak ere barnean hartuta, mutilazioa eragin duen indarkeriako zigor-karguengatik, baita mutilazio hori beste herrialde batean egiten bada ere”.

Istanbulgo Hitzarmena (Europako Kontseiluaren Hitzarmena, emakumearen kontrako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkakoa) 2011ko maiatzaren 11n sinatu zen, eta Espainiako Estatuan 2014ko abuztuaren 1ean jarri zen indarrean. Emakumeen aurkako indarkeria eta familia barruko indarkeria berariaz lantzen duen lehen tratatu europarra da, eta EGMa barnean hartzen du. Hitzarmena sinatu zuten herrialdeek –Espainiak, esaterako– mutilazioa nazioartean jazartzeko konpromisoa hartu zuten, justizia unibertsalaren murrizketa posibleak horretarako eragozpen izan gabe: “38. artikulua – Emakumeen genitalen mutilazioak

Aldeek legegintza-arloko edo bestelako neurriak hartuko dituzte honako hauek delitutzat tipifikatzeko, nahita egiten direnean:

- a) Emakume bati ezpain handiak, ezpain txikiak nahiz klitoria osoki edo partzialki zatitzea, oztopatzea edo beste edozer modutan mutilatzea;*
- b) Emakume bat a) puntuan zerrendatutako edozein ekintza jasatera behartzea, edo xede horretarako baliabideez hornitzea;*
- c) Neska bat a) puntuan zerrendatutako edozein ekintza jasatera behartzea edo bultzatzea, edo xede horretarako baliabideez hornitzea.”*

EUROPAR BATASUNAK ere egin du EGMari buruzko adierazpenik, eta Parlamentuan hainbat ebazpen landu ditu Estatuei legeak aldatzeko eskatzeko, EGMa egiten dutenak jazartzearren; EGMa medikuaren kontrolpean egitearen aurka ere badago, eta hezkuntza-arloko eta kontzientziazioko programak egitea proposatu du.

Europako Parlamentuak Ebazpena onartu zuen 2009ko martxoaren 24an, EBn egiten den emakumeen genitalen mutilazioaren aurkako borrokari buruz (2008/2071 (INI); Ebazpen horretan, EGMaren mota edo maila guztiak gaitzetsi ditu, “emakumearen aurkako indarkeria-ekintza delako eta, ekintza horrek oinarritzko eskubideak urratzen ditu; hain zuzen ere, osotasun pertsonal eta fisikorako eta osasun mentalerako eskubidea, baita sexu-eta ugalketa-eskubideak ere”, eta dioenez, “urraketa hori ezin da inolaz ere justifikatu edonolako kultura-tradizioen errespetuaren edo hastapen-zeremonien argudiopean”.

EUROPAKO ESTATUAK konturatu dira neurriak hartu behar dituztela jardunbide horren aurka, euren herrialdeetan gero eta gehiago egiten baita migrazio-fluxuen ondorioz, eta lege-arloari dagokionez, honako hiru aukera hauetako bat hautatu dute:

- Legeri espezifiko berria txertatzea; hala nola Norvegia, Suedia eta Erresuma Batua.
- Lehendik zegoen legeria aldatzea, Zigor Kodearen artikuluen artean aipamen espezifikoak txertatzeko; hala nola, Belgika, Danimarka eta Espainia.
- EGMa debekatzea kalte fisikoei eta adingabeen abusuari buruz lehendik zeuden zigor-legeen bitartez; hala nola, Finlandia, Frantzia, Alemania, Grezia, Italia, Herbehereak, Suitza eta abar.

ESPAINIAKO ESTATUA

Espainian, EGM mota guztiak lesio-delitutzat hartzen dira, eta **Zigor Kodearen** ordenamendu juridikoan tipifikatuta eta zigortuta daude; **11/2003 Lege Organikoaren 149.** artikuluan, delituaren zigorra zehaztu da eta sei urtetik hamabi urtera bitarteko zigorra izan daiteke; adingabe baten kasuan, guraso-agintea, tutoretza, kuraordetza, jagoletza eta harrera baliatzeko gaitasungabetze berezia ere aplika liteke lau urtetik hamar urtera bitarteko aldi baterako.

2005. urtean **3/2005 Lege Organikoa** ere onartu zen; bertan, jardunbide hori lurraldetik kanpo ere jazartzen da, hau da, delitua atzerrian egiten denean, betiere egileak edo kaltetua Espainiako lurraldean baldin badaude –kasu gehienetan horrela izaten da–. Horrek aurrerapausoa dakar giza eskubideen aurkako jokabideekiko justizia unibertsalaren printzipioan, zigorgabetasuna saihesten baita kasu jakin batzuetan; hain zuzen ere, jatorrizko herrialdera bidaiatzen dela baliatuta neskei EGMa egiten zaien kasuetan.

Berrikiago, **Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzen duen 1/2014 Lege Organikoa –martxoaren 13koa, justizia unibertsalari buruzkoa–** onartu zen. Lege hori onartuz gero, EGMari dagokionez legeria aldatu egin da; honela:

«4. Era berean, espainiar jurisdikzioak eskumena izango du espainiarrek edo atzerritarrek lurralde nazionaletik kanpo egiten dituzten egitateak ezagutzeko, Espainiako legeen arabera egitate horiek tipifikagarriak badira. Esate baterako, delitu hauek sartzen dira multzo horretan, adierazitako baldintzak betetzen direnean:

1. Emakumeen Aurkako Indarkeriaren eta Etxeko Indarkeriaren Prebentziorako eta Indarkeria horien Aurka Borrokatzeko Europako Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 11ko Hitzarmenak arautzen dituen delituak, baldintza hauek betetzen badira:

- Espainiar baten aurkakoa izatea prozedura.
- Ohiko bizilekua Espainian duen atzerritar baten aurkakoa izatea prozedura.
- Egitateak gertatzeko unean Espainiako nazionalitatea zuen edo ohiko bizilekua Espainian zeukan biktima baten kontra eginga izatea delitua, eta delitu-egitatea egozten zaion pertsona Espainian egotea. [...]

Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoaren 13. artikuluan arabera, adingabe bat arrisku- edo babesgabezia-egoeran dagoela detektatzen duten pertsonak edo profesionalak behartuta daude bai laguntza ematera, baita gertaeraren berri legezko ordezkariari ematera ere.

Bestalde, horrelako jardunbideen berri izan eta ezer ez egitea delitutzat jo daiteke osasun-profesionalen kasuan, jardunbide hori saihesteko edo jazar dadin sustatzeko betebeharra ez betetzeagatik; **Zigor Kodearen 450. artikuluan** tipifikatuta dago delitu hori.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, emakumeen eta nesken babes espezifikoki buruzko arau-esparruan bi lege sartzen dira:

- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa.
- 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa.

Bi lege horiek EGMari buruzko nazioarteko, Europako eta Estatuko legeriaren esparruan interpretatu behar dira, betiere EAEn nahitaezko betetzekoak badira, eta giza eskubideen aldeko, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko eta haurren babesari buruzko arau guzti-guztiak aintzat hartu behar dira. Adibide bat ematearren, nazioarteko eremuan, diskriminazioaren debekua eta biktimak “eskubideen titulartzat” onartzea –giza eskubideen ikuspegiaren ardatz nagusi diren aldetik– honako itun espezifiko hauen arabera aplikatu behar dira: Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena eta Emakumearen aurkako Diskriminazio Mota guztiak Ezabatzeari buruzko Nazioarteko Hitzarmena (CEDAW). Giza, genero- eta haur-eskubideen ikuspegi hirukoitz horrek eratzen du aplikatu beharreko araudia interpretatzeko esparru zabala, baita autonomia-erkidegoaren eremuan ere.

GATAZKA ETIKOAK JARDUNEAN. ERANTZUKIZUNAREN ETIKA

EnOsasun- eta gizarte-arloko profesionalen asistentziako eta prebentzioko jardunean, zaila izan daiteke erabakitzea noiz eta zein kasutan jakinarazi behar zaien agintari judizial edo fiskalei, eta gatazka etikoak sor daitezke.

Zigor-prozedurari dagokionez, EGMa argi eta garbi debekatuta egotea eta legez kanpoko jokabide onartezin dela adieraztea bateragarria izan daiteke gaitzespenaren zehaztasunarekin, betiere egoera pertsonalak aintzat hartuta. Egoera horiek tradizioaren indarrarekin lotuta daude; izan ere, tradizio hori betetzea eginbehar edo ezarpentzat hartzen dute, eta ez dira ausartzen tradizioa urratzera, haien sinesmenen arabera ondorio kaltegarriak izango dituztelako, ustez. Sinesmen horiek gainditu ahal izateko, azalpenak eman behar dira eta giroak ere egokia izan behar du, debekua zentzuzkoa dela ulertarazteko, baina betiere norberaren kultura-ezaugarriari eustearekin bateragarri izanik.

Emakumeen genitalen mutilazioak ez du erantzun bakar eta zehatzik. Kontua ez da harrera-gizartearen balioen eta migratzaileen balioen artean gatazka bat dagoela; bestela, gutxiengoaren balioa sakrifikatzea izango litzateke konponbide errazena. Era berean, ordenamendu juridikotik eta, zehazki, zigor-zuzenbidetik konponbideak eskaintzeko aukerak mugatuak dira, ordenamenduaren sektore horri “ultima ratio” izaera esleitzearen ondoriozko berezko ezaugarriak direla-eta. Ezin dugu ahaztu gure helburua jardunbide horiek desagerraraztea baldin bada, ez dela nahikoa eta ez dela egokia soilik zehapen-tresna baliatzea²⁷.

Osasunaren, gizartearen edo hezkuntzaren arloko asistentzia-jardunean dago EGMa desagerrarazteko lanaren arrakastaren zati garrantzitsu bat. Gidaliburu honetan edo beste batzuetan gomendatutako jardunen bitartez, lan horretan aurrera egin ahal izango dugu, baina gidaliburu honen benetako eta funtsezko helburua osasun-arloko profesionalei laguntzea da, gure artean bizi diren neskak, izen-abizenak dituzten eta gure osasun-zentroetara joaten diren neskak mutila ez ditzaten. **Profesionalek kasu zehatz bakoitzerako arau eta protokoloak aplikatuta jardun behar dute, eta hori ez da prozesu mekaniko edo automatiko bat: arazoak konplexuak direlako, testuinguru eta egoerak arraroak direlako, eta erabaki horien emaitza eta ondorioak zeintzuk izan daitezkeen ezin dutelako jakin, erabaki zailak hartu behar izaten dituzte, ardura osoz.** Eta hortxe, egoera horretan, erabakiak hartzeko prozesuan sortzen dira gatazka etiko garrantzitsuenak.

XX. mendearen hasieran bi etika mota bereizi ziren, elkarren kontrakoak: **“uste osoaren etika” eta “ondorioen etika”**. Uste osoaren etikan bizimodu moralizat hartzen da printzipio eta arauak egoera zehatzetan aplikatzen dituen, zirkunstantzia eta ondorioak kontuan izan gabe; aldiz, ondorioen etikaren xedea da ahalik eta emaitza eta ondorio onenak lortzea, ezein printzipiori atxiki gabe. Uste osoaren etikan etika printzipialistak –deontologikoak ere esaten zaie (deon = printzipioa) biltzen dira; eta ondorioen etikan, berriz, korrante etiko utilitaristak edo teleologikoak (telos = helburua)

Max Weber-ek hirugarren tarteko eredu bat proposatu zuen, muturreko bi eredu horien alternatiba moduan; printzipioak eta ondorioak aldi berean aintzat hartzen ditu, betiere erabaki zentzuzkoak, zuhurrak, neurrizkoak edo jakintsuak hartzeko. Tarteko mota horri **“erantzukizunaren etika”** deitu zion.

Erantzukizunaren etikak alde zureko bi tesitan oinarritzen dira:

- Errealitatea oso konplexua da, guk errealitateari buruz ditugun ideiak baino askoz ere konplexuagoa.
- Erabaki baten eraginpeko pertsona guztiek hausnarketa-prozesuan parte hartzeko aukera izan beharko lukete, beren argudioak aurkeztu eta, hartara, azken emaitza aberasteko; azken erabaki horrek parte-hartzaile guztiek libreki eta bortxarik gabe onartzeko modukoa izan beharko luke.

²⁷ Adela Asua. Konstituzio Auzitegiko magistratua. EHUko katedraduna.

Gure erabaki moralak hartzeko garaian, printzipio moraletan adierazitako irizpide orokorrak ez ezik, egoera jakin batean gertatzen diren zirkunstantzia eta ondorio espezifikoek azterketa eta ebaluazioa ere hartu beharko genituzke kontuan. **Erabakiak soilik printzipioei erreparatuta hartzea arduragabekeria da. Gure erantzukizuna etorkizunera bideratzen da beti, eta beraz, ondorioak ere aintzat hartu behar dira, judizio moralaren osagai diren aldetik.** Judizio moral zehatzak lantzeko prozesuan, printzipioak itsu dira ondoriorik gabe, eta ondorioak, aldiz, huts dira printzipiorik gabe²⁸.

Ondorio moduan zera esango dugu, **printzipioak arau juridikoetan oinarritzen dira baina ez dira itsu-itsuan, automatikoki aplikatu behar, baizik eta kasu bakoitzaren testuingurua eta egoera zehatza aztertu ondoren, eta hartzen diren erabakiek izan ditzaketen ondorioak ere balioetsi ondoren.**

Legezko betebeharrak horiei eta, zehazki, delitu bat egin dela salatzeko betebeharrari dagokionez, honako zehaztapen hauek egin behar ditugu:

- Lehenik, gure Zigor Kodearen 450. artikulua ez du behartzen delitu bat salatzea, eragoztera baizik, hori egin ahal izanez gero. Bestela esateko, profesional batek agerrarazitako EGM bat salatu behar ote den balioetsi behar da, betiere salaketa horrekin beste EGM bat prebenituko dela uste izanez gero, eta adingabearen interes gorena ez urratzeko ahalegina eginez, biktimizazio bikoitza saihestearren.
- Salatzeko betebeharra Prozedura Kriminalaren Legearen 259., 262. eta 264. artikuluetan xedatuta dago. 262. artikulua arabera, norbaitzuek, euren kargu, lanbide edo ogibideak direla medio, delitu publiko baten berri badute berehala horren salaketa egin beharko dute. Parterik eman ez duena medikuntza, kirurgia edo farmaziako irakaslea bada eta parte horrek beraren lan-jarduerekin zerikusia badu, orduan isuna ezin izango da izan 125 pezeta baino gutxiagokoa, ezta 250 pezeta baino gehiagokoa ere (gainerako kasuetan, 25 pezetatik 250 pezetara bitartekoa izango da).

Salatzeko betebeharra ez betetzeagatik jaso daitekeen zehapena hain txikia dela aintzat hartuta, alde batetik, eta bestetik, legegilearen asmoa argi eta garbi delitua egin ez dadin jokatzea behartzea dela ikusita, ondorio hau aterata dezakegu: **justiziari jakinarazteko betebeharra ez da absolutua, erlatiboa baizik, eta laguntzeko eta prebenitzeko betebeharraren mende dago.**

Ezin dugu ahaztu **adingabearen ongizate gorena gailendu behar dela** beste edozer gauzaren gainetik, baita lege-betebeharren gainetik ere, zeren lege-betebeharrek ezin baitiote kalterik ekarri biktimari –kasu honetan, adingabeei–, eta biktimizazio bikoitza saihestu behar dela.

Balioesteko eta hausnartzeko ariketa hori egitea gomendatzen dugu gidaliburu honetan, baina zenbait kasutan, erabakiak hartzeko garaian segurtasuna eta ziurtasuna murriz

²⁸ Diego Gracia.

dezake; hala ere, kasu jakin bakoitzean EGMa prebenitzeko eta eragozteko helburu bikoitza beteko duten erabaki zuhurrak hartzeko erantzukizuna onartzeko modurik onena izaten da, ahal den heinean, adingabearen interes gorena ahalbidetzearen.

ESKUBIDEAK, BETEBEHARRAK ETA ERANTZUKIZUNAK

Alde batetik EGMa jasan duten pertsonen eskubideak, bestetik eskubide horiek errespetatzeko beharrezkotzat jotako betebeharra eta, azkenik, kasu bakoitzean erabakiak hartzeari atxikitako erantzukizunak aintzat hartzen dituen ikuspegi hirukoitz horretatik begiratuta, inplikaturako agente guztiak hiru multzotan sailka ditzakegu: eskubideen titularrak, betebeharren titularrak eta erantzukizunen titularrak. Esan gabe doa EGMan inplikaturako agente edo eragile guztiek eskubide, betebehar eta erantzukizunak dituztela, baina agentea edozein izanik, ere, rol morala gailentzen zaie gainerakoei.

ROL MORALA	DEFINIZIOA	AGENTEAK
ESKUBIDEEN TITULARRAK	Eskubideen urraketa pairatu dutenak, baina aldi berean egoera horren transformazioaren protagonista aktibo direla, eta euren eskubideak eta euren komunitatearen eskubideak gauzatzeko gaitasuna dutela.	- EGMa pairatu duten emakumeak. - EGMa pairatu duten neskak. - EGMa pairatzeko arriskuan dauden emakume eta neskak.
BETEBEHARREN TITULARRAK	Eskubideen berme, betetze eta garapenarekin lotutako betebehar juridiko eta moralak dituzten erakundeak.	- Estatuak, bereziki, osasun-hezkuntza- eta justizia-sistema publikoak, eta une jakin batean Estatuak ordeztzen duten gainerako agintaritzak, dela Iparraldean, dela Hegoaldean. - Nazioarteko Erakundeak.
ERANTZUKIZUNEN TITULARRAK	Arau eta protokoloak aplikatu behar dituzten subjektuak, betiere ondorioak aintzat hartuta, eta kasu bakoitzean gatazkan dauden balioak ahalik eta gutxien kaltetuko dituzten jardun zuhurrak bilatuta.	- Familiak. - Agintari eta lider tradizional (zibil eta erlijiosoak) eta "zirkunzizio-egileak". - Osasun-sektoreko profesionalak. - Epaile eta fiskalak. - Gizarte zibil antolatua: GKEak, elkarteak eta abar. - Komunikabideak.

Iturria: ODA'M 2013 (egilea: Zuleyka Piniella). Geuk egokituta.

Eskubideen titular diren agenteei bideratzen zaizkie gainerako agenteen (betebehar eta erantzukizunen titularren) jardunak; honako taula honetan laburbildu ditugu jardun horiek:

ESKUBIDEEN TITULARRAK

EGMA JASAN DUTEN EMAKUMEAK	EGMA JASAN DUTEN NESKAK	ARRISKUAN DAUDEN EMAKUMEAK	ARRISKUAN DAUDEN NESKAK
		Prebentzioari eta bitartekaritzari lehentasuna ematea esku-hartze judizialaren gainetik.	
Arreta espezializatua ondorioak minimizatzeko.		EGMaren ondorio kaltegarrien eta euren esku-bideen gaineko sentsibilizazioa eta heziketa.	
Belaunaldiarteko elkarrizketa sustatzea kultura-ondareari eta ondare horren alderdi positibo eta negatiboei buruz.		Horren ordezkot erritualak edo babes-konpromiso kolektiboak.	
		Babes-mekanismoak ezartzea eta zabaltzea.	

Iturria: ODA'M 2013. Geuk egokituta.

BETEBEHARREN TITULARRAK

NAZIOARTEKO ERAKUNDEAK	ESTATUA	JUSTIZIA	OSASUNA	HEZKUNTZA
Giza Eskubideak eta eskubide kolektiboak bermatuko dituzten arau-esparruak sustatzea.	Giza Eskubideei buruzko Nazioarteko Konpromisoak berrestea. Eskubide horiek gauzatzeko beharrezkoak diren politika-, lege- eta administrazio-arloko neurriak abiaraztea.	Lege-erreformak berrikusi, sustatu eta gauzatzeko, Giza Eskubide indibidual eta kolektiboaren Nazioarteko hitzarmen eta konpromisoen arabera.	Osasun-profesionalei prestakuntza espezifiko ematea arriskuan dagoen populazioa detektatzeko, eta EGMak osasunean eragiten dituen ondorioak minimizatzeko esku hartzea.	Hezkuntza-arloko profesionalei prestakuntza espezifiko ematea arriskuan dagoen populazioa detektatzeko.
Eskubideak betetzen direla zaintzea eta gomendioak ematea.	Estatu hartzaile eta igorleen arteko koordinazioa migrazioari dagokionez.	Beste lege-sistema batzuekin koordinatzea Giza Eskubide indibidual eta kolektiboak bermatzeko.	Profesionalen elkargoek jardunbidea medikalizatzearen aurkako adierazpenak egitea.	Jardunbide tradizional positiboen eta negatiboen gaineko hausnarketa eta eztabaida biltzen dituzten hezkuntza-curriculumak diseinatzea.
Nazioko ekimenei eta nazioarteko sareei laguntzea.	Esparru honetan espezializatutako gizarte zibil antolatuarekin koordinatzea.	Arrisku-kasuetan koordinatzeko neurriak abiaraztea.		
Esperientzia arrakastatsuak koordinatzea eta gizarteratzea.	EGMa eta bestekoa JTKk desagerrarazteko eta prebenitzeko lanetan aktiboki parte hartzea nazioarteko erakundeetan.	Jardunbidea uztearen aldeko pertsonen babes eta laguntza ematea.	EGMaren ondorioen gaineko sentsibilizazioa eta heziketa. Arreta emateko eta, ahal den heinean, kaltea konpontzeko aholkularitza eta laguntza.	Jardunbide Tradizionalei buruzko kanpainak edo eskola-klubak.

JTKen aurka borrokatzen duten Giza Eskubideen defendatzaile eta aktibistei babes eta laguntza ematea. Kultura-ondareari eta Jardunbide Tradizionalei buruzko ikerketa akademiko/unibertsitarioa sustatzea.

Iturria: ODA'M 2013. Geuk egokituta.

ERANTZUKIZUNEN TITULARRAK

FAMILIAK	LIDER TRADIZIONALAK	OSASUN, HEZKUNTZA ETA GIZARTEAREN AR-LOKO PROFESIONALAK	EPAILE ETA FISKALAK	GIZARTE ZIBIL ANTOLATUA	KOMUNIKABI-DEAK
	Belaunaldiarteko elkarrizketa sustatzea kultura-ondareari, JTKei eta EGMari buruz. Agintari tradizionalak sentsibilizatzea eta hezteak. Kultura-eginkizun positiboak sustatzea.	Arrisku-kasuak zaintzea eta babestea.	Zehapenak neurtzea, adingabearen interes gorena ahalbidetearren.	Garapen-programak, sentsibilizazioko eta heziketako kanpainak Giza Eskubideei buruz.	Konpromiso etikoak JTKei eta EGMari modu arduratsuan ekiteko.
	JTKak eta EGMak ez erabiltzeko aukerak sustatzea.	EGMaren ondorioen gaineko sentsibilizazioa eta heziketa.	Osasun- eta gizarte-sistema publikoekin koordinatzea.	Kulturan garrantzitsuak diren figura tradizionalak identifikatzea eta EGMaren aurkako borrokarekin bat egitea.	Estatuak eta agintariak salatzea, eskubideekin lotutako konpromiso eta arauak betetzen ez badituzte.
	EGMaren aurkako borrokarekin bat egitea prozesuko bitartekari moduan.	Mutilatutako emakume eta neskentzako jardun aringarriak.		EGMa egiteari uzten diotenei babes eta onarpen publikoa ematea.	
	Erligioak JTKei eta EGMari buruz duen iritzia argitzea eta adieraztea.	Adingabeen fiskaltzarekin eta instrukzio-epaileekin koordinatzea.		Komunitate emigranteek jatorrizko komunitateekin izaten dituzten prozesu komunitarioetan laguntzea.	Gizarte zibil antolatuaren kanpaina eta ekintzak zabaltzea, eta EGMrik gabeko komunitateen adierazpenak sustatzea.

Iturria: ODA'M 2013. Geuk egokituta.